

## Asier Polo

• BIOLONTXELO JOLEA •

■■■ Klasikoaz bestelako musikarekin itzuli da etxera Asier Polo biolontxelo jole bilbotarra, denetarik egitea atsegina baitu. ■■■ Txikitatik izan nahi zuen musikari, eta ez duela inolako sakrifizioirik egin ziurtatu digu. ■■■ Komunikazioa du helburu munduko edozein agertokitara igotzen denean.

# «Bidean gozatzea da nire helburua»

BILBON da egunotan Asier Polo, etxean. Euskalduna jauregian eskaini zuen joan den astelehenean kontzertua, Marta Zabaleta piano jolearekin batera.


■ **Bilboko Gaztedi Musikazaleen kontzertuan parte hartu duzu asteon. Zure lehen urratsak elkarteari lotuta daude, ezta?**

Musika munduan egin nuen lehen gauza garrantzitsua elkarteari Espainiako saria irabaztea izan zen, 16 urte nituela. Bilbon haiekin hainbat kontzertu eskaini nituen, liburutegian eta beste hainbat tokitan. Musikari baten bilakaerarako ezinbestekoa den lana egiten dute.

■ **Lehen ikasketak egin ondoren, Alemaniara abiatu zinen. Beharrezkoa al da kanpoko esperientzia?**

Bai, beti. Europako erdialdeko herrialde batzuekin alderatuta atzerago gaude musika kontuetan. Ikasketen eta azpiegituren aldetik hobeto prestatuta daude, ekimen gehiago egiten dira eta sorkuntza handiagoa da. Uste dut kanpora ateratzea aberasgarria dela.

■ **Mstislav Rostropovitx bezalako maisu handiak**



MONIKA DEL VALLE

**izan dituzu irakasle. Zer ikasi duzu haiengandik?**

Master ikastaro horietan batez ere musika munduan arriskatu egin behar dela ikasi dut. Ikertu beharra dago, aurrera egin etengabe eta gogotsu. Noski, teknika ere irakasten dute, eta hori ikasten den zerbait da, baina gero dator interesgarriena, bide berriak jorratzea.

■ **Nazioartean nolabaiteko-**

**ospea lortu duzu. Zein da zure helburua?**

Bidean gozatzea da nire helburua, datorrena datorrela. Egiten dudana gozatu nahi dut, ahalik eta ondoen egiten saiatu. Inork ez dezala inoiz esan «zergatik dago musikari hau dagoen tokian?». Ilusioz lan ona egin nahi dut, edonon. Helburu zehatzik ez daukat; hori bai, ez dut inoiz nagoen toki bere-

an gelditzerik nahi. Hobera joan nahi dut, bilatu.

■ **Gauza asko utzi al duzu albo batera musika dela eta?**

Bat bera ere ez. Hau da nire bizitza, beti egin dut nahi izan dudana. Sekula ez dut hartu sakrifizio legez, txikitatik argi izan dut. Osabak biolontxelo zeukalako hasi nintzen musika tresna hori jotzen, eta horrela aurkitu

### Arriskua

«Teknika ikasi egiten da, baina gero dator interesgarriena, bide berriak jorratzea; Mstislav Rostropovitx eta beste batzuegandik ikasi dut musikan arriskatu egin behar dela, ikerlana egin»

nuen atseginen dudana instrumentua.

■ **Zein da biolontxeloaren zailtasun handiena?**

Musika tresna guztiek daukate zailtasun berbera, musika egitea. Zailtasuna ez du musika tresnak jartzen, norberagandik dator. Norberaren barne sentimenduak instrumentuarekin uztartu behar dira lehenengo, eta gero besteei igorri. Hori da musikan zailena, ez musika tresna bera. Helburua ez da teknika, eta, beraz, ez da zailena. Bada zailagoa den zerbait, komunikazioa, alegia. Eta hori lortzea instrumentu guztiekin da zaila.

■ **Komunikazioa duzu helburu, beraz?**

Beti. Nire etxean maila ezberdinetan lan egin dezaket, pazientziatz, lasaitasunez, modu hotzean. Baina hori guztia aurreikusita dago gero agertokian komunikazioaren magia sortzeko bidea egiteko. Une horretan emozio ezberdinak sorrarazi nahi ditut.

■ **Musika klasikoaz gain, garaikidea, jazz eta bestelakoa lantzen duzu. Zeinetan ari zara erosten?**

Orain ari naiz beste arlo horiek aurkitzen. Beti izan dut klasikoaz gain bestelako musikak jorratzeko gogoia. Kontzertu aretoak iraganera begira daude. Aski da musikari klasikoaren betiko irudiaz: 60 urte ingurukoa, frakduna... Erritual bat dago halako kontzertuen inguruan. Ondo dago, baina ez dago zertan bestelakoa gaitzetsi. Gu jende gaztea gara, dibertigarria, asko mugitzen dena, eta ez daukagu zertan aldatu gure nortasuna musika klasikoa egiteko. Erromantizismoa atsegina dut gehien, baina denetarik egitea gustatzen zait.

Montse Arregi

BILBO